

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**EKONOMIA ETA OGASUN
SAILA**
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA
Y HACIENDA**
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

LURRALDE LANKIDETZA 2014-2020

Interreg 
EUROPEAN UNION

EAE

LURRALDE LANKIDETZA

1- Sarrera

Europar Batasunaren Tratatuak (EB) kohesio-politikaren helburu gisa ezartzen du ekonomia-gizarte- eta lurralde-desberdintasunak murriztea, gutxien garatuta dauden eskualdeei laguntza berezia eskainiz.

Kohesio-politika 1989an jaio zen eta orduz geroztik eboluzionatzen eta aurrera egiten joan da. Lehen urteetan, kohesio-politikak Europan eta eskualde-mailan eragin txikia zuten proiektu nazional jakin batzuk finantzatzen zituen. Denbora igaro ahala funtsezko printzipioak txertatu dira, besteak beste: laguntzak EBko eskualde behartsuenetan banatzea, urte anitzeko programazioa egitea, estrategikoagoak diren inbertsioak babestea eta tokiko eta eskualdeetako eragileen parte-hartzea handitzea. Era berean, azpiegitura fisikoetan egindako inbertsioek nagusitasuna galdu dute eta bide eman zaie berrikuntzan, ETEen laguntzan, enpleguan eta gizarteratzean egindako inbertsioei.

Gaur egun, kohesio-politika Europar Batasunaren inbertsio-tresna nagusia da, haren helburua izanik enplegu-sorkuntzari, enpresa-lehiakortasunari, hazkunde ekonomikoari, garapen jasangarriari eta herritarren kalitatearen hobekuntzari laguntzea.

Xede horrekin, esparru juridiko berrian 11 helburu tematiko definitu dira, Europa 2020 Estrategiaren lehentasunei dagozkienak. Inbertsioaren inpaktua ahalik eta handiena izan dadin, estatu kideek eta eskualdeek Europatik jasotako funtsak helburu horien kopuru mugatu batean kontzentratu behar dituzte, lurraldearen berariazko erronkak eta garapen-beharrak kontuan izanik. Erreformaren ardatza da EBk babestutako inbertsioak emaitzetara are gehiago bideratzen direla bermatzea, kalitate hobeko adierazleak, txostenak eta ebaluazioak erabilia.

Azken finean, kohesio-politika berria Europa 2020 Estrategiarekin eta haren helburu nagusiekin lerratuta dago erabat, eta gainera lotura du Europako Seihilekoarekin eta EBko gobernamentu ekonomikoaren prozesuarekin.

2014-2020 aldirako kohesio-politikak 351.800 milioi euro izango ditu, Europar Batasunaren aurrekontuaren herena gutxi-gorabehera. Baliabide horiek honako helburu hauetara bideratuko dira: «**Inbertsioa Hazkundera eta Enpleguan**» eta «**Lurralde Lankidetzaren**».

Lurralde Lankidetzaren helburura bideratutako baliabideak 8.948 milioi eurokoak dira. Baliabideen % 74 mugaz haraindiko lankidetzaren finantzatzeko erabili dira, % 20 lankidetzaren transnazionalerako eta gainerako % 6 eskualdeen arteko lankidetzarako.



Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programa (POCTEFA) **mugaz haraindiko** lankidetzako Europako programa bat da, eta haren xedea da Espainia, Frantzia eta Andorrako lurraldeen garapen jasangarria sustatzea. 2014-2020 POCTEFA Pirinioen iparraldeko eta hegoaldeko lurren eta itsasertzeko lurraldeen artean Europar Batasunak sustatu duen bosgarren programa da.

Programa lankidetzaren eremuko sektore publiko eta pribatuko eragileei zuzentzen zaie. Haren parte dira organismo publikoak, enpresak, garapen-agentziak, elkarteak, asoziazioak, fundazioak, merkataritza-ganberak eta irakaskuntza-zentroak, besteak beste.

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzako Programak 7 helburu tematiko definitu ditu, garapen adimendun, jasangarri eta integratzaileko Europa 2020 Estrategiarekin guztiz bat egiten dutenak. Aurrekontu-zuzkidura 298 milioi eurokoa da, eta horietatik % 66, hau da, 189,5 milioi, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (EGEF) bidez Europar Batasunak emandako laguntza da, eta gainerakoa deialdietan programatzen diren lankidetzaren proiektuen sustatzaileen konturakoa da.

Ardatza	Helburu tematikoak	POCTEFA		%
		Inbertsio Lehenetsua	Milioi €	
1	1HT Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea	1 b	40,9	26%
	3HT ETEen lehiakortasuna hobetu	3 b	8,9	
2	5HT Klima-aldaketarekiko egokitzapena eta arriskuen prebentzioa eta kudeaketa sustatzea	5 a	10,7	15%
		5 b	17,8	
3	6HT Ingurumena kontserbatu eta babestea, eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	6 c	24,9	25%
		6 d	23,1	
4	7HT Garraio jasangarria sustatu eta oinarizko azpiegitura sareetako oztopoak kendu	7 c	24,9	13%
5	8HT Jasangarritasuna eta enpleguaren kalitatea sustatu eta lan mugikortasuna erraztu	8 CTE	12,4	14%
	9HT Gizarteratzea sustatu eta pobrezia eta edozein diskriminazioaren aurka borrokatu	9 a	14,2	
6	Laguntza Teknikoa		11,4	6%
	EGEF GUZTIRA		189,5	100%

1. deialdia

Proiektuen lehen deialdia 2015eko irailaren 10ean egin zen, eta azaroaren 10era arte luzatu. Programako ardatz guztiak ireki ziren. Proiektu-deialdi honetarako eskura zegoen EGEF laguntzaren zenbatekoa 71,2 milioi eurokoa izan zen (aurrekontuaren % 40, Laguntza Teknikoa salbu), ardatz nagusi bakoitzaren aurrekontuaren % 60ko mugarekin.

Deialdi horretan 122 proiektu aurkeztu ziren, eta guztira EGEF laguntzako ia 152 milioi euro eskatu ziren; hau da, EGEF funtserako zegoenaren bikoitza baino gehiago. Proiektu bakoitzeko eskatutako EGEF funtsaren batez bestekoa 1.250.000 € izan zen.



Aurkeztutako 122 proiektuen onargarritasuna aztertu zen, eta 3 proiektu baztertu ziren, baldintzak ez betetzeagatik. Hortaz, gainerako 119 proiektuak onartu egin ziren behin betiko. 119 proiektu horietatik 58k dute Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileen partaidetza. Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileek aurkeztutako proiektuen zenbatekoa 30 milioi eurokoa zen, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsari egindako eskaria 19 milioi eurokoa izan zen.

POCTEFA 2014-2020 programaren lehen Programazio Batzordea 2016ko maiatzaren 11n bildu zen Jakan, eta mugaz haraindiko lankidetzarako 58 proiektu programatu zituen onartutako 119 proiektuen artean, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 71,2 milioi euroko laguntza jasoz.

Euskal Autonomia Erkidegoa programatu diren 58 proiektu horietatik 33 proiektutan zegoen, hau da, programatutako proiektu guztien % 57an. 33 proiektu horien kostua 61 milioi euro ingurukoa zen, eta horietatik 17 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak ziren, EGEF funtsaren 10,8 milioi euroko laguntza jasoko zutelarik.

Ardatzen arabera sailkapena eginez honako hau adieraz dezakegu: 1. ardatzean, «Berrikuntza eta Lehiakortasuna dinamizatzea», programatutako 18 proiektuetatik 12 EAEko sustatzaileak dituzten proiektuak dira, eta jasoko duten EGEF funtsaren laguntza 4 milioi euro ingurukoa izango da. 2. ardatzean, «Aldaketa klimatikorako egokitzapena sustatzea, baita arriskuen prebentzioa eta kudeaketa ere», programatutako 10 proiektuetatik 6 proiektu EAEko sustatzaileenak dira, eta 749.000 euroko laguntza jasoko dute. 3. ardatzean, «Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa, erabilera jasagarria sustatzea», programatutako 17 proiektuetatik 8 proiektu EAEko sustatzaileak dituzte, eta EGEF funtsaren 4 milioi euro baino zerbait gehixeago jasoko dute. 4. ardatzean, «Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea», 3 proiektu programatu dira eta horietako 2tan EAEko bazkideek hartzen dute parte, jasoko duten laguntza 1,2 milioi eurokoa izanik. Eta azkenik, 5. ardatzean, «Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea», 10 proiektu programatu dira eta horietatik 5 EAEko sustatzaileek aurkeztu dituzte, EGEF funtsaren 700.000 euro inguru lortuz.



INTERREG V-A-ESPAÑA-FRANTZIA- ANDORRA 2014-2020. 2 Deialdia

EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak

Proiektua Kopurua	Akronimoa	Ardatza	IL	Bazkideak	EAEko bazkidearen Kostua	EAEko bazkidearen EGEF	Kostu guztira	EGEF guztira
EFA139/16	EMENSASPI	1	1b	LURGINTZA S.COOP NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACION Y DESARROLLO, S.A.	154.407,14 175.395,00	100.364,64 114.006,75	716.423	465.675
EFA142/16	ORHI			Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente del País Vasco AZARO FUNDAZIOA SAIOLAN, S.A.	125.192,00 241.650,00 292.746,00	81.374,80 157.072,50 190.284,90	1.992.538	1.295.150
EFA148/16	REDPRION			ASOCIACIÓN CENTRO DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA EN BIOCIENCIAS ATLAS MOLECULAR PHARMA S.L	330.000,00 70.000,00	214.500,00 45.500,00	2.000.000	1.300.000
EFA152/16	TESTACOS			Laboratorio de Salud Pública de Bizkaia. Departamento de Salud del Gobierno Vasco	158.759,00	103.193,35	1.291.569	839.520
EFA194/16	TNSI			BIHURCRYSTAL S.L. Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas	136.150,00 156.943,34	88.497,50 102.013,17	1.913.052	1.243.484
EFA208/16	ARDI			Ardiekin S.L. NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario S.A.	75.500,00 386.412,00	49.075,00 251.167,80	1.155.073	750.797
EFA227/16	LINGUATEC			ELHUJAR FUNDAZIOA EUSKALTAZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	301.000,00 200.650,00 159.750,00	195.650,00 130.422,50 103.837,50	1.227.500	797.875
EFA253/16	BIOPLAST			FUNDACION GAIKER	200.000,00	130.000,00	1.495.590	972.134
EFA278/16	PYRENART		3b	Ayuntamiento de Bilbao	104.000,00	67.600,00	2.003.493	1.302.270
EFA210/16	PIRAGUA	2	5a	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas Instituto Geológico y Minero de España	207.379,40 121.291,68 61.719,98	134.796,61 78.839,59 40.117,99	1.848.431	1.175.735
EFA200/16	HeliNET		5b	OSAKIDETZA - Servicio Vasco de Salud (Servicio de EMERGENCIAS)	831.429,00	540.428,85	2.548.479	1.656.511
EFA250/16	ALERT			GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA	453.910,86	295.042,06	3.399.275	2.209.529
EFA251/16	PATRIM+	3	6c	Unión Temporal de Empresas ZIUM Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea	100.000,00 100.000,00	65.000,00 65.000,00	1.250.000	812.500
EFA224/16	FAUNAPYR		6d	Aranzadi Zientzia Elkartea	165.800,00	107.770,00	545.300	354.445
EFA126/16	E-MOBASK	4	7c	Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa Compañía del Tranvía de San Sebastián	492.025,00 652.195,00	319.816,25 423.926,75	1.934.228	1.182.358
EFA268/16	SMARTMOB			Ayuntamiento de Irun Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi	604.570,77 72.000,00	392.971,00 46.800,00	2.108.627	1.370.607
EFA162/16	LLL-TRANSVERSALS	5	8e	Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta	87.638,00	56.964,70	1.810.540	1.138.077
EFA170/16	ICTTRAINING40			Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País	154.400,00	100.360,00	441.525	286.991
EFA252/16	Irakaslegaiak AEN			GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi	202.657,60	131.727,39	659.660	428.779
EFA260/16	COOPWOOD			Asociación Patronal de Carpinteros de Gipuzkoa TKNIKA	243.000,00 212.000,00	157.950,00 137.800,00	1.027.600	667.940
EFA128/16	MIGAP		9a	TEATRO PARAÍSO S.A.L. UNESCO ETXEA – Centro UNESCO del País Vasco	200.000,00 60.696,49	130.000,00 39.452,72	1.943.726	1.259.703
EFA151/16	EKIN			Asociación Agiantza Elkartea AGINTZARI SCIS BIZITZEN FUNDAZIOA	64.049,00 74.041,00 80.497,28	41.631,85 48.126,65 52.323,23	764.731	485.375
EFA258/16	SAREA			NAZARET FUNDAZIOA UNIVERSIDAD DE DEUSTO	218.270,52 74.262,40	141.875,84 48.270,56	568.515	369.535
Erabateko proiektuak		23			8.802.388,47	5.721.552,45	34.645.875	22.364.990



2. deialdia

Proiektuen bigarren deialdia 2016ko azaroaren 10ean egin zen, eta programako ardatz guztiak ireki ziren. EGEF laguntzaren zenbatekoa 71,2 milioi eurokoa da (aurrekontuaren % 40, Laguntza Teknikoa salbu). Hautagaien aukeraketa-prozedurak bi fase ditu. Lehen fasea 2016ko azaroaren 10etik abenduaren 13ra bitartean egin zen.

Lehen fasean 169 proiektu aurkeztu ziren, eta 167 onartu. Guztira, EGEF laguntzako 152 milioi euro eskatu zituzten; hau da, EGEF funtserako zegoenaren bikoitza baino gehiago. Proiektu bakoitzeko eskatutako EGEF funtsaren batez bestekoa 1.250.000 € izan zen. Onartutako 167 proiektuetako 65ek Euskadiko sustatzaileak zituzten.

Proiektuak aztertu ostean, 2017ko apirilaren 11n, Programazio Batzordeak ebatzi zuen 106 proiektu bigarren fasera pasatzea, eta horietatik 101ek epe barruan aurkeztu zuten dokumentazioa. Bigarren fase honetan aurkeztutako proiektuetako 37k Euskadiko sustatzaileen parte-hartzea dute.

2014-2020 POCTEFAko Programazio Batzordea 2017ko azaroaren 8an bildu zen Biarritzen, eta erabaki zuen onartutako mugaz haraindiko lankidetzako 101 proiektuetako 62 programatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoa programatu ziren 62 proiektu horietako 23tan zegoen, hau da, programatutako proiektu guztien % 36an. 23 proiektu horien kostua 35 milioi euro ingurukoa zen, eta horietatik 8,8 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak ziren, EGEF funtsaren 5,7 milioi euroko laguntza jasoko zutelarik. Bigarren deialdi honetan, EGEF laguntzen onuradun izan dira zuzenbide publikoko 13 erakunde eta zuzenbide pribatuko 20. Erakunde horietako 10 dagokien proiektuko arduradun nagusiak edo proiektuburuak izan dira.

Ardatzen araberako sailkapenari erreparatuta, 1. Ardatzean, "Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea", 9 proiektu programatu dira EAeko sustatzaileekin, eta 2,1 milioi euroko laguntza jasoko dute. 2. Ardatzean, "Klima-aldaketarako egokitzapena eta prebentzioa eta kudeaketa sustatzea", 3 proiektu onartu dira, eta EBko 1,1 milioi euroko laguntza jasoko dute. 3. ardatzean, "Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa eta erabilera jasangarria sustatzea", Euskadiko sustatzaileekin egindako 2 proiektu programatu dira eta 273.770 euro lortuko ditu EGEFetik. 4. ardatzean, «Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea», 1,2 milioi euroko laguntza jasoko duten 2 proiektu programatu dira. Eta, azkenik, 5. ardatzean, «Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea», EAeko sustatzaileak dituzten 7 proiektuk 1,1 milioi euroko laguntza jasoko dute EBtik.



INTERREG V-A-ESPANIA-FRANTZIA- ANDORRA 2014-2020. 2 Deialdia
EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak

Proiektua Kopurua	Akronimoa	Ardatza	IL	Bazkideak	EAEko bazkidearen Kostua	EAEko bazkidearen EGEF	Kostu guztira	EGEF guztira
EFA139/16	EMENSASPI	1	1b	LURGINTZA S.COOP NEIKER-INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACION Y DESARROLLO, S.A.	154.407,14 175.395,00	100.364,64 114.006,75	716.423	465.675
EFA142/16	ORHI			Asociación Cluster de Industrias de Medio Ambiente del País Vasco AZARO FUNDAZIOA SAIOLAN, S.A.	125.192,00 241.650,00 292.746,00	81.374,80 157.072,50 190.284,90	1.992.538	1.295.150
EFA148/16	REDPRION			ASOCIACIÓN CENTRO DE INVESTIGACIÓN COOPERATIVA EN BIOCIENCIAS ATLAS MOLECULAR PHARMA S.L	330.000,00 70.000,00	214.500,00 45.500,00	2.000.000	1.300.000
EFA152/16	TESTACOS			Laboratorio de Salud Pública de Bizkaia. Departamento de Salud del Gobierno Vasco	158.759,00	103.193,35	1.291.569	839.520
EFA194/16	TNSI			BIHURCRYSTAL S.L. Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas	136.150,00 156.943,34	88.497,50 102.013,17	1.913.052	1.243.484
EFA208/16	ARDI			Ardiekin S.L. NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario S.A.	75.500,00 386.412,00	49.075,00 251.167,80	1.155.073	750.797
EFA227/16	LINGUATEC			ELHUYAR FUNDAZIOA EUSKALTZAINDIA - REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA	301.000,00 200.650,00 159.750,00	195.650,00 130.422,50 103.837,50	1.227.500	797.875
EFA253/16	BIOPLAST			FUNDACION GAIKER	200.000,00	130.000,00	1.495.590	972.134
EFA278/16	PYRENART		3b	Ayuntamiento de Bilbao	104.000,00	67.600,00	2.003.493	1.302.270
EFA210/16	PIRAGUA	2	5a	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Agencia Estatal Consejo Superior de Investigaciones Científicas Instituto Geológico y Minero de España	207.379,40 121.291,68 61.719,98	134.796,61 78.839,59 40.117,99	1.848.431	1.175.735
EFA200/16	HelINET		5b	OSAKIDEZTA - Servicio Vasco de Salud (Servicio de EMERGENCIAS)	831.429,00	540.428,85	2.548.479	1.656.511
EFA250/16	ALERT			GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA	453.910,86	295.042,06	3.399.275	2.209.529
EFA251/16	PATRIM+	3	6c	Unión Temporal de Empresas ZIUM Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea	100.000,00 100.000,00	65.000,00 65.000,00	1.250.000	812.500
EFA224/16	FAUNAPYR		6d	Aranzadi Zientzia Elkartea	165.800,00	107.770,00	545.300	354.445
EFA126/16	E-MOBASK	4	7c	Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa Compañía del Tranvía de San Sebastián	492.025,00 652.195,00	319.816,25 423.926,75	1.934.228	1.182.358
EFA268/16	SMARTMOB			Ayuntamiento de Irun Consorcio Transfronterizo Bidasoa-Txingudi	604.570,77 72.000,00	392.971,00 46.800,00	2.108.627	1.370.607
EFA162/16	LLL-TRANSVERSALIS	5	8e	Fundación para la Formación Técnica en Máquina-Herramienta	87.638,00	56.964,70	1.810.540	1.138.077
EFA170/16	ICTRAINING40			Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco	154.400,00	100.360,00	441.525	286.991
EFA252/16	Irakaslegaiak AEN			GECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi	202.657,60	131.727,39	659.660	428.779
EFA260/16	COOPWOOD			Asociación Patronal de Carpinteros de Gipuzkoa TKNIKA	243.000,00 212.000,00	157.950,00 137.800,00	1.027.600	667.940
EFA128/16	MIGAP		9a	TEATRO PARAÍSO S.A.L. UNESCO ETXEA - Centro UNESCO del País Vasco	200.000,00 60.696,49	130.000,00 39.452,72	1.943.726	1.259.703
EFA151/16	EKIN			Asociación Agiantza Elkartea AGINTZARI SCIS BIZITZEN FUNDAZIOA	64.049,00 74.041,00 80.497,28	41.631,85 48.126,65 52.323,23	764.731	485.375
EFA258/16	SAREA			NAZARET FUNDAZIOA UNIVERSIDAD DE DEUSTO	218.270,52 74.262,40	141.875,84 48.270,56	568.515	369.535
Proiektuak guztira		23			8.802.388,47	5.721.552,45	34.645.875	22.364.990



3. deialdia

Proiektuen hirugarren deialdia 2019ko otsailaren 7an hasi zen, apirilaren 15era arte, eta programaren ardatz guztietara irekita geratu zen, "Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzea, babestea, sustatzea eta garatzea" 6c lehenatasunera izan ezik, ez baitzuen EGEFen laguntzarik. Proiektuen deialdi honek 35,8 milioi euroko EGEF laguntza du (aurrekontuaren % 20, laguntza teknikoa kontuan hartu gabe). Kopuru hori handitu ahal izango da 2014-2020 aldian programatutako proiektuetatik EGEF funtsak askatzen badira, proiektuak hautatzeko prozedura fase bakarrean egingo da.

Deialdi horretan 72 proiektu onartzen dira, eta guztira 53,1 milioi euroko EGEF laguntza eskatzen dute. Onartutako 72 proiektuetako 38k Euskadiko sustatzaileak zituzten. Euskal Autonomia Erkidegoko sustatzaileek aurkeztutako proiektuen zenbatekoa 12,2 milioi eurokoa zen, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsari egindako eskaria 8,3 milioi eurokoa izan zen.

Programazio Batzordea 2019ko urriaren 15ean bildu zen Jacan, eta, onartutako 72 proiektuetatik, mugaz gaindiko 43 lankidetzako proiektu programatu zituen. 2020ko apirilaren 15ean, Programazio Batzordea berriro biltzen da, birtualki Covid19ren eskutik, erreserbako zerrendako lehen 10 proiektuak onartzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoa programatu diren 53 proiektu horietatik 25 proiektutan zegoen, hau da, programatutako proiektu guztien % 47an. 25 proiektu horien kostua 28,5 milioi eurokoa zen, eta horietatik 6 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eksklusibokoak ziren, EGEF funtsaren ia 4 milioi euroko laguntza jasoko zutelarik. Hirugarren deialdi honetan, EGEF laguntzen onuradun izan dira zuzenbide publikoko 17 erakunde eta zuzenbide pribatuko 15. Erakunde horietako 12 dagokien proiektuko arduradun nagusiak edo proiektuburuak izan dira.

Ardatzen araberako sailkapenari erreparatuta, 1. Ardatzean, "Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea", 11 proiektu programatu dira EAEko sustatzaileekin, eta 1,8 milioi euroko laguntza jasoko dute. 2. Ardatzean, "Klima-aldaketarako egokitzapena eta prebentzioa eta kudeaketa sustatzea", 6 proiektu onartu dira, eta EBko 573.556 euroko laguntza jasoko dute. 3. ardatzean, "Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa eta erabilera jasangarria sustatzea", Euskadiko sustatzaileekin egindako proiektu 1 programatu da, eta 41.213 euro lortuko ditu EGEFetik. 4. ardatzean, «Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna laguntzea», 798.904 euroko laguntza jasoko duen proiektu bat programatu da. Eta, azkenik, 5. ardatzean, «Lurraldeen eskumenak eta inklusioa indartzea», EAEko sustatzaileak dituzten 6 proiektuk 684.538 euroko laguntza jasoko dute EBtik.



INTERREG V- A ESPAÑA-FRANTZIA-ANDORRA 2014-2020. 3. Deialdia

EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak

Proiektua Kopurua	Akonimoa	Ardatza	IL	Bazkideak	EAEko bazkidearen kostua	EAEko bazkidearen EGEF	Kostu guztira	EGEF guztira
EFA298/19	LANALAND	1	1b	NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario S.A. LATXA ESNEA S.COOP. UROLA KOSTAKO LANDA GARAPEN ELKARTEA Ekoiber ingeniería del caucho y plástico de colágeno s.l.	177.768,92 82.884,52 90.596,80 134.169,65	115.549,80 53.874,94 58.887,92 87.210,27	1.196.554,50	777.760,30
EFA312/19	EKATE			Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	170.298,11	110.693,77	1.290.971,00	839.131,15
EFA313/19	LGMED			Leariker S.Coop.	437.419,00	284.322,35	1.575.179,32	1.023.866,57
EFA321/19	COMPET plus			Fundación Deusto Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Gipuzkoa AECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarra	46.200,00 88.934,23 66.858,42	30.030,00 57.807,25 43.457,97	920.810,00	598.526,50
EFA329/19	REVALPET UP			Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea	393.957,00	256.072,05	1.450.661,38	942.929,89
EFA357/19	INNOTUB			NEIKER Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario	178.032,00	115.720,80	913.531,08	593.795,20
EFA360/19	PROTEOBLOOD			CIC Biogune-Asociación Centro de Investigación Cooperativa en Biotecnologías	136.610,00	88.796,50	1.445.912,88	939.843,45
EFA362/19	PIXIL			BCAM Basque Center for Applied Mathematics	180.000,00	117.000,00	1.342.231,22	872.450,29
EFA350/19	CORE			FEDERACION MERCANTIL DE GIPUZKOA AENKOMER, Empresarios/as de Comercio y Servicios de Álava	226.587,12 74.143,32	147.281,63 48.193,16	1.290.775,82	839.004,28
EFA302/19	DRIVEINML		3b	BEAZ S.A.U.	92.327,45	60.012,84	545.513,40	354.583,71
EFA338/19	GATURI			BASQUETOUR TURISMOAREN EUSKAL AGENTZIA AGENCIA VASCA DE TURISMO SOCIEDAD ANONIMA	181.961,23	118.274,80	1.436.750,77	933.888,00
EFA346/19	OPCC ADAPYR	2	5a	Inobe - Sociedad Pública de Gestión Ambiental del Gobierno Vasco S.A. Consortio de la Comunidad Trabajo de los Pirineos	107.476,45 70.001,54	69.859,69 45.501,00	1.940.963,08	1.279.091,25
EFA337/19	ACCLIMAFOR			FUNDACIÓN HAZI FUNDAZIOA	47.315,66	30.755,18	511.080,86	332.202,56
EFA297/19	VITISAD			NEIKER Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario	178.973,60	116.332,84	702.570,70	456.670,95
EFA322/19	FLORAPYR AVANCE			Aranzadi Zientzia Elkartea - Sociedad de Ciencias Aranzadi	62.650,28	40.722,68	595.701,48	387.205,96
EFA310/19	CLIM'AGIL			ABERE Zerbitzu Teknikoak Kooperatiba Sozietatea	99.028,77	64.368,70	722.376,29	469.544,58
EFA344/19	MARLIT		5b	Fundación AZTI - AZTI Fundazioa	316.948,03	206.016,22	1.304.175,83	847.714,28
EFA343/19	CONNECTFOR	3	6d	HAZI Fundazioa	63.404,00	41.212,60	1.378.362,92	895.935,89
EFA314/19	TRANSFERMUGA-RREKIN	4	7c	AECT Eurorégion Nouvelle Aquitaine-Euskadi- Navarra Euskal Trenbide Sarea / Red Ferroviaria Vasca	399.987,69 829.095,54	259.992,00 538.812,10	3.757.203,94	2.442.182,56
EFA316/19	TPC	5	8e	Ayuntamiento de Bilbao	155.000,00	100.750,00	1.154.994,00	750.746,10
EFA318/19	FORMA NAEN			ZubiGune Fundazioa CIFP USURBIL LHII KASLAN GIPUZKOA AECT Eurorégion Aquitaine-Euskadi-Navarra TKNIKA: Centro de Investigación e Innovación Aplicada de la FP del País Vasco	125.444,62 64.750,00 49.750,77 49.389,23 84.528,02	81.539,00 42.087,50 32.338,00 32.103,00 54.943,21	746.875,00	485.469,35
EFA333/19	GOPY			FUNDACION EDE	89.133,91	57.937,04	721.745,26	469.134,43
EFA331/19	Ocean i3			Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea EUSKAMPUS FUNDAZIOA	84.000,00 78.000,00	54.600,00 50.700,00	256.000,00	166.400,00
EFA355/19	TRANSLANEKIN			OlatuKoop: Economía social eta eraldatzaileak sustatzeko sarea-elkartea	80.960,00	52.624,00	629.996,92	409.498,00
EFA330/19	BERTAN		9a	Aginzari Sociedad Cooperativa de Iniciativa Social	192.178,00	124.915,70	761.124,00	494.730,60
Erabateko proiektuak		25			5.986.763,86	3.891.396,51	28.592.061,65	18.602.305,85



Betearazpena 2014-2020

Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzarako Programa Eragilearen eremuan, 2014-2020 aldian, 173 proiektu onetsi dira mugaz gaindiko lurralde osoan, gutxi-gorabehera 274 milioi euroko zenbatekoarekin. Bada, 178 milioi baino pixka bat gehiagoko diru-laguntza orokorra jasoko dute Europar Batasunetik proiektu horiek.

Programatutako 173 proiektu horietatik 81 proiektuk EAEko sustatzaileen parte-hartzea dute, hau da, onartutako proiektuen ia erdiek. Horien kostua, guztira, 125 milioi eurokoa da eta horietatik inguru 32 milioi euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak dira, Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren ia 21 milioi euroko ekarpen orokorra jasoko dutela.

Euskadiko sustatzaileen partaidetza izan duten programatutako 81 proiektuen tipologiari dagokionez, 31 gertuko proiektuak dira, hau da, proiektuko bazkideak mugaren mendebalde ingurukoak dira (Aragoikoak, Errioxakoak, Nafarroakoak, Euskadikoak eta Nouvelle-Akitaniakoak). Programatu diren gainerako 50 proiektuak transbertsal bezala sailkatzen dira, parte-hartzaileak mugaz gaindiko lurraldearen gainerako eremuetatik baitatoz.

Urte hauetan, EGEF laguntzaren EAEko onuradunak zuzenbide publikoko 53 erakunde eta zuzenbide pribatuko 46 erakunde izan dira, eta gero eta parte-hartze handiagoa du sektore pribatuak.

EAEko bazkidea duten proiektuen inbertsio osoaren batez bestekoa 400.000 euro ingurukoa da, eta gutxienez 62.650 euro (Florapyr Avance) eta gehienez 2.117.684 euro (Txinbadia+) arteko proiektuak onartu dira.

Ardatzen araberako sailkapena kontuan izanda, 1. ardatzak ("Berrikuntza eta lehiakortasuna dinamizatzea") EAEko bazkideen inbertsioaren ia % 38 hartzen du, eta 3. ardatzak "Tokiko baliabideen babesa, balorizazioa eta erabilera jasangarria sustatzea", % 21. 4. ardatzak "Ondasunen eta pertsonen mugikortasuna sustatzea" EAEko sustatzaileen inbertsioaren ia % 17 biltzen du, eta 2. ardatzak "klima-aldaketara egokitzea eta prebentzioa eta kudeaketa sustatzea" eta 5. ardatzak "Eskumenak indartzea eta lurraldeetan sartzea", % 12, hurrenez hurren.

Inbertsio handiena duten proiektuak 4. ardatzean daude, eta, ondoren, 3., 1., 2. eta 5. ardatzetan.



Europako Hego-mendebaldeko Espazioko Lurralde Lankidetzako Programa

Europako Hego-mendebaldeko Espazioko Lurralde Lankidetzako Programaren (SUOE) esparrua Espainiako, Frantziako, Portugalgo eta Erresuma Batuko (Gibraltar) eskualdeek osatzen dute, eta haren helburua da Europako hego-mendebaldeko espazio horren hazkundera eta garapen jasangarria sustatzea lankidetzaproiektu transnazionalak garatuz.

Programa garatzeko oinarria Europa 2020 Estrategiak eta hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzailearen hiru ereduak osatzen dute, horiek baitira 2014-2020 aldirako programazioa zuzentzen duten printzipioak. Programaren alde egiten du, halaber, aurreko lau programazio-aldietan bildutako esperientziak. Izan ere, hari esker lurraldea eta bertako eragileak ezagutzen dira, eta ulertu egiten dira proiektuak garatzeko modalitateak.

Programa transnazionalaren esparrua logikoak arreta berezia eskaintzen die, lehenasunez, hazkunde adimenduna eta jasangarria eragiten duten alderdiei. Hazkunde-eredu horiei esker balio erantsi handiagoa du lankidetzaproiektuak, alderatzen badugu eskualdeek beren kasa egin ditzaketenei edo mugaz haraindiko lankidetzaproiektuei esker lor daitekeenarekin (adibidez, lan-merkatua, komunikabide fisikoak edo gizarteratze- eta prestakuntza-programak). Nabarmendu behar da, halaber, beharrezkoa dela lan egitea espazioaren potentzial endogenoaren balioa aitortzeko eta inbertsioak erakartzeko zabala den eta funtsez modu nahiko eskasean hornitua dagoen eremu batera, lurraldeko barreiadura finantzarioa saihesteko, Programarekin lotutako emaitzek ikusgarritasun handiagoa izateko eta inpaktu handiagoa lortzeko.

5 helburu tematiko hautatu dira, goian aipatutako bi esparruen inguruan, eta 106,9 milioi euroko aurrekontuarekin.

Ardatza	Helburu Tematikoak	SUOE	
		Inbertsio Lehenasuna	Milioi €
1	1HT Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza sustatzea	1 b	39,5
2	3HT ETEen lehiakortasuna hobetu	3 a 3 b	15,0
3	4HT Sektore guztietan karbono-isurketa gutxiko ekonomiara pasatzea bultzatu	4 c	11,8
4	5HT Klima-aldaketarekiko egokitzapena eta arriskuen prebentzioa eta kudeaketa sustatzea	5 b	12,8
5	6HT Ingurumena kontserbatu eta babestea, eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea	6 c 6 d	21,4
EGEF GUZTIRA			106,9



1. deialdia

Programaren ardatz guztietarako proiektuak aurkezteko lehen deialdia 2015eko irailaren 21ean hasi zen. Hautagaien aukeraketa-prozedurak bi fase ditu, lehiaketa bidezkoak biak. Lehen fasea 2015eko irailaren 21etik azaroaren 6ra luzatu zen, eta bigarrena 2016ko otsailaren 29tik apirilaren 29ra egin zen. Proiektu-deialdi honetarako eskuragarri zegoen EGEF funtsa 40,2 milioi eurokoa da.

Lehen fasean 496 proposamen jaso ziren, eta horien onargarritasuna aztertu eta ebaluatu ostean, 78 hautatu ziren bigarren fasera pasatzeko. Guztira, 85,4 milioi euroko ekarpena eskatzen zioten Eskualde Garapeneko Europako Funtsari.

Programazio Batzordea 2016ko ekainaren 30ean bildu zen, eta 36 proiektu programatu zituen. Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren 39 milioi euroko diru-laguntza jasoko zuten. Euskal Autonomia Erkidegoa programatu ziren 36 proiektu horietako 9tan zegoen, hau da, programatutako proiektu guztien % 25ean; proiektu horiek 7 milioi euro jasoko zituzten. Proiektu horietan Euskadiko 14 erakundek hartu zuten parte: 4 erakunde publikok, 6 teknologia-zentrok eta zuzenbide pribatuko 4 erakundek.

Hau da Euskadiko sustatzailea duten proiektuen banaketa, ardatzaren arabera: 1. ardatza, «Ikerketa eta berrikuntza», 4 proiektu; 2. ardatza, «ETEn lehiakortasuna eta nazioartekotzea», 1 proiektu; 3. ardatza, «Energia-eraginkortasuna eta -efizientzia», 1 proiektu; 4. ardatza, «Arriskuen prebentzioa eta kudeaketa», 1 proiektu; eta, amaitzeko, 5. ardatza, «Ingurumena eta baliabideen eraginkortasuna», 2 proiektu.

INTERREG EUROPAKO HEGO-MENDEBALDEKO ESPAZIOA 1. Deialdia
EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak

Proiektua kopurua	Akronimoa	Ardatza	HT	IL	Bazkideak	EAEko bazkidearen kostua	EAEko bazkidearen EGEF	Kostu guztira	EGEF guztira
SOE1/P1/E0020	AEROCAR	1	HT1	1b	LEARTIKER, S.COOP.,	385.120,00	281.840,00	1.141.661,55	856.246,16
SOE1/P1/E0332	SHCity	1	HT1	1b	Fundación Tecnalia Research & Innovation	200.000,00	142.000,00	1.087.667,63	815.750,72
SOE1/P1/F0011	ADDISPACE	1	HT1	1b	LORTEK, S.COOP. Asociación Española Fabricantes Máquinas-Herramienta, Accesorios, Otros Sistemas y Tecnologías FABRI Grupo Nicolás Correa Láser, S.A.	425.502,10 255.476,55 75.031,20	290.126,58 174.607,41 50.273,40	1.720.297,53	1.290.223,15
SOE1/P1/F0370	ICT4SILVER	1	HT1	1b	Home Care Lab, S. Coop. Fundación Tecnalia Research & Innovation Asociación de Industrias de las Tecnologías Electrónicas y de la Información del País Vasco	150.000,00 145.000,00 140.000,00	112.500,00 108.750,00 105.000,00	1.133.108,80	849.831,60
SOE1/P2/E0242	AGROSMARTcoop	2	HT3	3a	FEDERACIÓN DE COOPERATIVAS AGRO-ALIMENTARIAS DE EUSKADI	149.750,00	112.312,50	1.176.561,30	882.420,98
SOE1/P3/F0362	ENERPAT	3	HT4	4c	Sociedad Urbanística Municipal de Vitoria - Gasteizko Udal Hirigintza Elkartearen Enanche 21 Zabalgune Fundación Tecnalia Research & Innovation	414.748,00 297.361,00	310.411,00 223.020,75	1.887.563,71	1.415.672,78
SOE1/P4/F0112	PLURIFOR	4	HT5	5b	NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A. Fundación Hazi Fundazioa UNION DE SELVICULTORES DEL SUR DE EUROPA, AEIE.	173.806,00 144.527,00 160.150,00	126.354,50 105.895,25 118.112,50	1.654.165,97	1.240.624,48
SOE1/P5/E0189	PhytoSUDOEE	5	HT6	6d	NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A. Centro de Estudios Ambientales de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteiz Environmental Studies Centre Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Departamento de Biología Vegetal y Ecología	128.237,36 139.281,50 119.906,00	93.328,02 104.461,13 87.129,50	1.193.885,60	895.414,20
SOE1/P5/F0026	AGUAMOD	5	HT6	6d	Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea Departamento de Geodinámica	220.000,00	165.000,00	2.295.392,01	1.721.544,01
Erabateko proiektuak		9				3.723.896,71	2.711.122,54	13.290.304,10	9.967.728,08



2. deialdia

Proiektuen bigarren deialdia 2017ko martxoaren 13an irekin zen. Bi ardatzetarako proiektuak baino ez ziren onartu: 1. ardatza, «Berrikuntzarako gaitasunak sustatzea hazkunde adimendun eta jasangarri baterako»; eta 5. ardatza, «Ingurumena babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea». Proiektu-deialdi honetarako eskuragarri zegoen EGEF funtsa 25 milioi eurokoa da.

Programako aukeraketa-prozedurak bi fase ditu. Lehena 2017ko martxoaren 13tik 31ra bitartean egin zen. Fase horretan 357 proiektu-proposamen aurkeztu ziren, tartean 2.686 onuradun daudelarik. 1. ardatzean 222 proiektu aurkeztu ziren, eta 5.ean 135. Espainia da onuradun nagusien zerrendako burua, 262 erakunderekin.

Onartutako 357 proposamenetako 68k Euskadiko sustatzaileak zituzten, eta guztien artean ia 14 milioi euroko laguntza eskatzen zioten Eskualde Garapeneko Europako Funtsari.

Programazio Batzordea 2017ko uztailaren 11n bildu zen, eta erabaki zuen 2017ko uztailaren 12tik urriaren 31ra arte luzatuko den bigarren fasera pasatzea aurkeztutako 357 proposamenetako 46 proiektu. Ardatzen arabera sailkapenari dagokionez, aipatu behar da 29 proposamen 1. ardatzekoak direla, eta 5. ardatzekoak gainerako 17ak. Onartutako 46 proposamenetako 9k Euskadiko sustatzaileak dituzte, eta guztien artean 2 milioi euro baino pixka bat handiagoa den laguntza eskatzen diote Eskualde Garapeneko Europako Funtsari.

Programazio Batzordea Lisboan bildu zen 2018ko otsailaren 7an eta bigarren fasera igaro ziren 46 proiektuetako 21 onartzea erabaki zuen. Guztien artean 25 milioi euroko finantzaketa jasoko dute EFEG funtsetik. Ardatzen arabera sailkapenari erreparatuta, 13 proiektu 1. ardatzekoak dira “Ikerketa eta berrikuntza”, eta 8 proiektu 5. ardatzekoak “Ingurumena eta baliabideen eraginkortasuna”.

Euskal Autonomia Erkidegoa programatu diren 21 proiektu horietako 4tan dago, hau da, programatutako proiektu guztien % 19an. 4 proiektu horien kostua 7 milioi eurokoa zen, eta horietatik ia milioi bat euro euskal bazkideen inbertsio eskusibokoak ziren, EGEF funtsaren 725.000 euroko laguntza jasoko zutelarik. Bigarren deialdi honetan, EGEF laguntzen onuradun izan dira zuzenbide publikoko erakunde bat eta 3 teknologia zentroak.

Ardatzen arabera sailkapenari dagokionez, 1. ardatzean “Ikerketa eta berrikuntza” 3 proiektu hautatu dira, eta 5. Ardatzean “Ingurumena eta baliabideen eraginkortasuna” proiektu bat, SUDOANG, bigarren deialdi honetan aurkeztu diren proiektu guztien artean puntuaziorik altuena lortu duena, hain zuzen ere.



INTERREG EUROPAKO HEGO-MENDEBALDEKO ESPAZIOA. 2. Deialdia
EAEko sustatzaileak dituzten programatutako proiektuak

Proiektua kopurua	Akronimoa	Ardatza	HT	IL	Bazkideak	EAEko bazkidearen kostua	Kostu guztira	EGEF guztira	FEDER Total
SOE2/P1/E0539	CircRuRaL4'0	1	OT1	1b	Asociación Centro Tecnológico Ceit-IK4	296.114,65	222.085,99	1.759.835,40	1.319.876,55
SOE2/P1/E0751	GHELP	1	OT1	1b	ASOCIACION INSTITUTO BIODONOSTIA	120.000,00	90.000,00	1.840.000,00	1.380.000,00
SOE2/P1/E0677	SUDOKET	1	OT1	1b	Fundación Tecnalia Research & Innovation	136.071,20	102.053,40	2.098.069,51	1.573.552,13
SOE2/P5/E0617	SUDOANG	5	OT6	6d	Fundación AZTI - AZTI Fundazioa	413.631,00	310.223,25	1.633.400,00	1.225.050,00
Erabateko proiektuak		4				965.816,85	724.362,64	7.331.304,91	5.498.478,68

3. deialdia

Proiektuen hirugarren deialdia 2018ko irailaren hasieran hasi zen, eta honako ardatz hauek ditu: 2. ardatza, "ETeen lehiakortasuna eta internalizazioa sustatzea"; 3. ardatza, "Energia-eraginkortasunaren arloko politikak eraginkorrakoak izan daitezen laguntzea"; eta 4. ardatza, "Arriskuak prebenitzea eta modu eraginkorragoan kudeatzea". Proiektu-deialdi honetarako eskuragarri zegoen EGEF funtsa 22,9 milioi eurokoa da. Programako aukeraketa-prozedurak bi fase ditu.

Programazio Batzordea 2019ko urtarrilaren 18an bildu zen, eta erabaki zuen 127 proiektu-proposamenetako 41 proiektu bigarren fasera pasatzea, 2019ko urtarrilaren 21ean hasi eta martxoaren 29ra arte. Ardatzen araberako sailkapenari erreparatuta, aipatu behar da 2. ardatzean 16 proposamen hautatu direla; 13. ardatzean eta 4. ardatzean, 12 proposamen.

Hirugarren deialdiko proiektuak programatzeko, Programazio Batzordea Cahorsen bildu zen 2019ko ekainaren 18an, eta bigarren fasera igaro ziren 41 proiektuetatik 18 onartzea erabaki zuen. Proiektu horiek 22,9 milioi euroko finantzaketa jasoko dute EGEF funtsetatik.

